txintxarri

2021-11-19 OSTIRALA / 1565. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM



Hiru hamarkada ospatzen

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte bete ditu. Ekitaldi instituzionala burutu ostean, herriarentzat FESTtakun egingo du hilaren 20an / 4-7

TXINTXARRI

Komertzioetan ere, euskaraz

Betikoa, gertukoa kanpainarekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak. Abenduaren 31ra arte iraungo du / 8-9

Laburra baina mamitsua izan da azaroko ohiko udalbatzarra: gai ugari jorratu dituzte / 2

Bi neurri osagarri iragarri ditu Osasun Sailak COVID-19 kasu positiboen goranzko joera eteteko / 3

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira hainbat jarduera antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak / 10

Jalgune elkarteak 30 urte bete, eta ospatzeko ekintza ugari antolatu ditu; tartean, jaialdia / 11

Alex Saleta-k 20 urtez azpiko Europako txapelketa irabazi du Espainiako selekzioarekin / 12

Errepide zein mendian, herritarrak ederki aritu dira; Behobia-Donostia lasterketa jokatu dute gehienek / 13

BLACK FRIDAY

%20ko deskontua
betaurreko graduatuetan
+
2. betaurreko osoa opari



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
943 37 74 55
LASARTE-ORIA

multiópticas
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

Michelin II, HAPO plana eta Zubillaga hizpide

Laburra baino mamitsua izan da azaroko ohiko udalbatzarra. Michelin II eremuari buruzko hitzarmena Plainco SA enpresarekin sinatzea, HAPO plana idazteko irizpide orokorrak eta Zubillaga baserriko bizilagunei laguntzeko mozio bateratua onartu ditu korporazioak

Txintxarri

Michelin II eremua merkatalgune bilakatzeko urratsak ematen jarraitzen du Lasarte-Oriako Udalak. Azaroko bilkuran onartu dute Plainco SA enpresarekin hitzarmena sinatzea. PSE-EEk eta EAJk alde bozkatu dute, abstenitu egin da ELOP eta aurka bozkatu du EH Bilduk. Uxue Loinaz zinegotziak azaldu ditu zergatiak: "Hasieratik azaldu gara egitasmoa egikaritzearen aurka; proiektuak ez dio balio gehigarririk ematen herriari.

Hamabost urte inguruko iraunaldia izango duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) egiteko prozesuan dago udala. Udalbatzarrean dokumentua erredaktatzeko irizpide orokorren gainean jardun dira. Horiek onartzea bozkatu dute PSE-EEk eta EAJk, abstenitu egin da ELOP eta aurka bozkatu du EH Bilduk. Loinazek hartu du hitza berriro, eta adierazi du EH Bilduri iruditzen zaiola "oso xumea" izan dela alderdi politiko zein herritarren parte hartzea. "Prozesua ezkutuan egiten ari dela uste dugu; iradokizunak egin arren, pisuzko aldaketarik txertatzeko asmorik ez du erakutsi udal gobernuak".

Loinazek azpimarratu du alderdia ados dagoela txostenaren helburu orokorrekin, baina ez aurrerapen dokumentuan jaso diren irizpideekin. "Gure hiri ereduarentzat ezinbestekoak diren printzipioak ez ditu jasotzen".

Zubillaga baserria

Urnieta bidean dago Zubillaga baserria. Zataraingo urbanizazioa egiteko lanak direla-eta, tona askoko kamioiak joan eta etorri ibiltzen dira egunero errepidetik. Jarduera horrek zartadurak eragin ditu etxaldean, jabeek salatu dutenez. Behin baino gehiagotan hitz egin du korporazioak gaiari buruz, eta udal gobernuak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak "ezer" egin ez dutela ikusita, mozio bateratu bat aurkeztu dute ELOP, EAJ eta EH Bilduk. Honakoa eskatu dute taldeek: udalak "berehala" har ditzala bere gain errepideko lanak; GI-3832 errepidetik Zatarainera kamioiek joateko baimena bertan behera utz dezala; emandako baimena berrikus dezala EAEko 2012ko kutsadura legea kontuan izanda;

OZTA-OZTA ONARTU DUTE ZUBILLAGA BASERRIARI BURUZKO MOZIOA: 9 BOZKA ALDE, ETA 8 AURKA

eta aurreko hiru erabaki horien berri ematea aldundiari. PSE-EEk aurka bozkatu arren, beste hiru udal taldeen bozkak gehiago izan dira, eta mozioa onartu du korporazioak.

EH Bilduren irudiko, arduradun nagusia foru aldundia da, baina udalak "askoz gehiago" egin dezake Zubillaga baserriko bizilagunak babesteko. "Zataraingo plana udalak sortu eta onartu du; kamioi pisutsuen joan-etorrien arazoa konpontzeko bide alternatiborik ez du eskaini". Antzeko hausnarketa egin du EAJko zinegotzi Estitxu Alkorta-k. "Urteak daramatzagu arazoa konpondu gabe, udalak tresnak ditu aferan esku hartzeko: trafikoa erregula dezake, baimena berrikus dezake... Oinarrian, borondate falta ikusi dugu".

PSE-EEko zinegotzi David Mateos-ek hartu du hitza gero. "Mozioa aurkeztu duten udal taldeek ez dute hausnarketa serio eta arduratsua egin. Obra baimena berrikustea proposatzen dute, baina ondorioei jaramon egin gabe. Epaitegietara joango litzateke, eta sustatzailearen jarduna eteteagatik kalte ordain oso altua ordaindu, milioika euro. Horrez gain, babes ofizialeko 72 etxebizitza bukatu gabe geratuko lirateke, eta herriak premia du".



EAJren bozeramaile Jon Antxordoki, Maialen Chourraut kiroldegia atzean duela. EAJ L-O

Udal gobernuari aldundiarekin negoziatzeko eskatu dio EAJk

Atsobakar kirol eremua 2020a baino lehen ez eraikitzeagatik udalak 252.000 euro galdu dituela salatu dute jeltzaleek

Txintxarri

Atsobakar kirol eremua 2020rako eraikitzen hasi ez izanagatik udal gobernuak 250.000 euro inguru ingresatzeari utzi diola salatu du EAJko bozeramaile Jon Antxordoki-k. Alkateari eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol diputatu Harkaitz Millan-ekin eseri eta negoziatzeko.

Antxordokik gogorarazi du foru aldundiak 252.829,72 euro esleitu zizkiola udal gobernuari 2017. urtean, Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen 2017-2020 Plan Estrategikoaren barruan. Dirulaguntza hori jasotzeko "baldintza bakarra", bozeramaile jeltzalearen aburuz, Atsobakar kirol eremuko lanak 2020a baino lehenago hastea zen. "Egia da Usurbilgo Udalak eragozpenak jarri dituela 2017. urtetik: administrazio izapideak eta txostenak eskatu ditu, legezko epeen mugetan askotan, lanak atzeratzeko helburuarekin. Lursaila Lasarte-Oriako Udalarena da, baina Usurbilgo lurretan dago".

"Finantzazioa ezin dugu galdu"

"Bi udalen arteko desadostasun tekniko baten artean ebazteko eskatu zitzaion foru aldundiari, Usurbilek eskatzen zituen txostenak beharrezkoak ziren ala ez erabakitzeko", adierazi du Antxordokik. "Oztopo horiei guztiei gehitzen badiegu COVID-19ak eragin duen geldialdia, hauxe da egoera: 2021ean gaudela eta Atsobakarreko lanak ez direla hasi".

Horren eraginez, udal gobernuak ez du foru aldundiaren dirulaguntza hori ingresatu, bozeramaile jeltzaleak deitoratu duenez: "Finantzazio hori ezin dugu galdu; ezinbestekoa eta beharrezkoa da alkateak diputazioarekin negoziatzea".

Ihes jokoan parte hartzeko aukera izango dute gazteek

Brigitarren komentua sortu zuen Miguel de Okendoren bizitza ardatz hartuta hezurmamitu dute jokoa

Txintxarri

Gazteei "aisialdi alternatiboa" eskaintzeko asmoz, "jarduera berritzailea" antolatu dute Lasarte-Oriako Quantum Escape Room-ak eta udalak, elkarlanean: ihes joko bat.

Azaroaren 26an egingo dute eta 13 eta 14 urte dituzten herritarrei zuzenduta dago. Iragarri dute Gaztelekuan egingo dutela, bi txandatan: 17:00etan lehena eta 19:00etan bigarrena. Edukiera mugatua izango da. Gehienez 30 pertsonek parte hartu ahal izango dute, bospasei pertsonako taldeetan banatuta, eta izen ematea zabalik dago jada. Horretarako, *https://quantum.eus/gazteleku/* web orria jarri dute interesatuen eskura.

Parte hartzaile guztiek jasoko dute sariren bat edo beste; garaileek *Smartwatch*-a lortuko dute eta bigarren eta hirugarren sailkatuek, aldiz, nahi duten erosketa egiteko 10 eta 15 euroko bonu trukagarriak.



Jardueraren antolatzaileak, aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

Positiboen goranzko joera eteteko neurriak

Bi neurri osagarri nagusi iragarri ditu Osasun Sailak.150 kasutik gorako intzidentzia tasa duten herriek ezingo dute prebentzio neurriak betetzea bermatu ezin duen jarduerarik egin, eta COVID ziurtagiria eskatu ahal izatea galdegin dio EAEko Auzitegi Nagusiari

Txintxarri

Azken asteotan goraka egin dute positibo kasuek EAEn eta joera hori eten asmoz, neurri osagarri berriak iragarri ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak; 100.000 biztanleko 150etik gorako intzidentzia tasa duten herriei eragingo diete muga berri horiek. Bi neurri nagusi eman ditu aditzera; batetik, prebentzio jarraibideak bete ezin daitezkeen egitasmo jendetsuak bertan behera utzi edo atzeratzea eta, bestetik, berriz, COVID ziurtagiria eskatu ahal izatea. Azken hori egikaritzeko baimena eskatu dio EAEko Auzitegi Nagusiari. Gaueko aisiarekin lotura duten eremuetan ezarri nahi du jaurlaritzak ziurtagiria. Ikusteke dago auzitegi nagusiak zer erantzuten dion eskaera horri.

Prebentzio neurriak bete daitezkeen barruko zein kanpoko jardueretan, aldiz, udalek handitu egin beharko dituzte, besteak beste, publikoarentzako guneak, eta jendearen zirkulazioa arintzeko bideak ere ireki beharko dituzte.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du aurrerantzean astean bitan argitaratuko duela txosten epidemiologikoa: astelehenetan eta ostegunetan. Aipatu azken txosten horren arabera, EAEn 121 herrik gainditzen dute 150eko intzidentzia tasa, Gipuzkoakoak gehienak.

Ospitaleetako egoera

Gaur-gaurkoz, Osasun Sailaren azken txosten epidemiologikoaren arabera, 114 gaixo daude gela arruntetan, eta 30 zaintza intentsiboetako unitatean.

Lasarte-Oriako datuak

Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hilaren 15etik 17ra arteko datu epidemiologikoak eman dituzte. Hiru egun horietan 11 positibo zenbatu dituzte Lasarte-Orian, eta azken hamalau egunetan, 50. Intzidentzia tasa metatua 262,54 da. Horrek esan nahi du, 150eko langa gaindituta, eremu gorrian sartu dela herria, hortaz, neurri osagarriak bertan ere eragina izango dutela.

Osasun agintariak datuak herriz herri xehatuta ematen hasi zirenetik, koronabirusak kutsatutako 2.234 lasarteoriatar atzeman dituzte, ehun biztanletik 11 pasatxo (%11,7). Gehien-gehienak sendatu badira ere, zoritxarrez, 24k ezin izan dute osatu eta hil egin dira. Iazko martxotik orain artekoan, azaroa izan da kutsatu gehien zenbatu dituzten hilabetea, zehazki, 275.

Azken asteetako lapurretak salatu dituzte ostalariek

Agintariei neurriak hartzeko eskatu diete, Lasarte-Oria "legerik gabeko herria" bihur ez dadin

Txintxarri

Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteko kide batzuek komunikatua bidali dute hedabideetara, azken asteetan euren negozioetan jasan dituzten lapurretak salatzeko. "Kalte ekonomikoez gain, sekulako segurtasun eza sortu digute". Gisa horretako ekintzak zigortu ezean, Lasarte-Oria "legerik gabeko herri" bihur daitekeela uste dute. Agintariei aferan esku hartzeko eskatu diete.

"Gaur ostalari bat izan da, bihar beste komertzio bat izango da, ondoren etxebizitza bat...eta horrela jarrai dezakegu, auskalo noiz arte". Arduradunei "beharrezkoak diren neurriak" hartzea galdegin diete ostalariek, "bandalismo mota horrek lekurik izan ez dezan gure herrian, eta ekintza horien arduradunak zigorrik gabe gera ez daitezen".



Ostalarien agerraldi bat. TXINTXARRI

Epaiketaren hasiera

Hilaren 15ean hasi da hiru akusaturen aurkako epaiketa, 2017an Lasarte-Oriako taberna eta tabako denda batean lapurtzeagatik. Gipuzkoako Fiskaltzak hamahiru urteko kartzela zigorra eskatu du bakoitzarentzat, eta 1.800 euroko isuna. Lapurtutako diru kopurua –7.000 eta 1.111 euro, hurrenez hurren– itzultzea eta tabako dendariari mila euroko kalte ordaina ematea ere galdegin du.



Pentsiodunen koordinakundeak mobilizazio ugari antolatu ditu urteotan. TXINTXARRI

Jarduera etetea erabaki du pentsiodunen koordinakundeak

Pentsio duinak lortzeko "beharrezko guztia" erdietsi ez arren, "borroka" horri "ekarpen handia" egin diotela uste du


Txintxarri

Hilabete hasieran egindako batzarrean, Lasarte-Oriako Pentsiodunen Koordinakundeak erabaki du jarduera bertan behera uztea, "aho batez". Azaldu duenez, "arrazoi pertsonalak" izan dira horretarako motibo nagusia, "hasieratik antolaketa batzordeak izan duen adiskidetasun eta laguntasun harremanaren barruan". Zuzendaritza batzordeko kideek eskerrak eman dizkiete pentsio publikoen problematikaren gainean koordinakundeak egin duen ibilbidean laguntza eman dieten guztiei.

Gogoratu dute lehen elkarretaratze ofiziala 2018ko martxoaren 5ean egin zutela, eta hurrengo bi urteetan beste hainbat eraman zituztela aurrera, COVID-19agatik derrigorrezko geldialdia egin behar zuten arte. Azken urte eta erdian zenbait ohar plazaratu arren, jarduera presentzialik ez dute egin, eta ez dute egingo. Edonola ere, batzordeko kide bakoitzak bere kasa babestuko ditu "pentsio publiko eta duinen aldeko ekintzak". Horrez gain, zehaztu dute "prest" daudela laguntzeko, norbanako edo talderen batek koordinakundearen martxa berrartu nahiko balu.

Egindakoaz harro

"Gure bizitzetako azken etaparako beharrezkoak diren pentsio duinez gozatzeko beharreko ikusten genuen guztia ez lortuta ere, egin ditugun aldarrikapen ekintzekin ekarpen handia egin diogu oraindik borrokan dirauen mugimenduari", nabarmendu dute kideek. 2018tik 2020ra burututako jardueragatik izakinak pilatu dituztela jakinarazi dute, eta "modurik bidezkoenean" banatuko dituztela zehaztu, nola egin erabakitzen dutenean.



Jarri CONTINENTAL gurpilak eta eskuratu
80 € arteko erregai txartela
Turismo, furgoneta edo 4x4 autoak
2 edo 4 gurpil CONTINENTAL 17"ko uztaiak edo handiagoak jarriz gero

Gerturatu gure tailerrera!
A2car
Zumaburu kalea 18 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 24 63



Udako txokoak hasiera-hasieratik antolatu izan ditu Ttakun Kultur Elkartea-k. TXINTXARRI

Helmugara iritsi arte, bideaz gozatzen

Ibilbide oparo eta luzea egin du Ttakun Kultur Elkartea-k azken hiru hamarkadetan. Urtemuga berezi horren harira, eragilearen historian esanguratsuak izan diren zenbait pasarte jaso ditu TXINTXARRI aldizkariak esku artean duzun erreportajean

Txintxarri

Hiru hamarkadako ibilbidea artikulu bakar batean jasotzea ez da erronka makala. Are gehiago piezaren protagonista Ttakun Kultur Elkartea denean. 1991ko azaroaren 16an jaio zen, euskal kultura eta euskararen normalizazioa Lasarte-Orian errotzeko eta bultzatzeko asmoz. Hainbat euskaltzalek zuten horretarako nahia, eta hainbat urtez lanean ibili eta gero, elkartea sortu zuten. Geroago aztertuko dugu sakonago, baina 30 urteren buruan sekulako dimentsioa hartu du eragileak, sortzaileek imajina zezaketena baino handiagoa. Horregatik diogu ez dela erraza hori guztia orri batera ekartzea, baina merezi du ahaleginak, are gehiago esku artean duzun aldizkaria elkartearen egitasmo bat izanda.

Geltoki kaleko bulegoan artikulua idatzi, aldizkaria maketatu eta inprentara bidali dugu. Gaur egun, egunero-egunero Ttakunek dituen programak aurrera ateratzeko lan egiten dugun langileok kale horretan dugu egoitza, Jalgi kafe antzokiaren ondoan, baina ez da beti hala izan. Andrejoakinaenea haurren eskolako ganbaran egin zituen elkarteak lehen urratsak: urtebetez bildu ziren han, asteazkenero, eragile bat sortzea zela haien asmoa eta ilusioa. Gorpuztea lortu zutenean, Pablo Mutiozabal kalera mugitu ziren, harik eta Lasarte-Oriako Udalak Erribera kaleko lokala utzi zien arte. Sei urtez jo eta ke aritu ziren beharrean han, eta 1998an etorri ziren Geltoki kalera. Urte horretan bertan eskuratu zuen Jalgi kafe antzokia.

Horrez gain, Iñigo de Loiola kalean topagune bat du Ttakunek, Ttakunenea izenekoa. Euskaltzale direnentzako "arnasgune berri bat" izateko asmoz jaio zen 2016. urtean. Gaur egun, elkartearen beraren zenbait egitasmo han egiten dituzte eta elkarte gastronomikoa ere bada.

Hamaika egitasmo

Esan bezala, makina bat langilek aurrera eramaten dituzte Ttakunen programak. Zeintzuk diren egitasmoak? Bat aipatu dugu honezkero, TXINTXARRI aldizkaria, 1993ko urrian sortua. Aurreneko proiektuetako bat izan zen. Hori baino lehen, udaleku irekiak eta euskal txokoak martxan zituen elkarteak. Gerora etorri dira beste mordo bat: haurren aisialdia jorratzeko, Amaraun Kluba eta Gazte Kluba; gazteena lantzeko, Kuadrillategi eta Faktoria; familian euskararen transmisioa bultzatzeko, GurasoLeku; ikastetxeetan hizkuntza lantzeko, Elemeleka; eta beste hainbat. Esparru formalagoetan ez ezik, kalean ere bultzatzen du Ttakunek euskal kultura eta euskararen normalizazioa, urtean zehar makina bat ekimen antolatzen baititu, urtaroz urtaro: Euskal Inauteriak; udaberriko bertso saioa; Azkorteko erromeria; Olentzero eta Mari Domingiren etorrera; San Tomas azoka; Santa Ana parodia; eta San Pedro Jaietako jarduerak, hala nola Sorgin Dantza, sagardo dastatzea eta zikiro afaria.

Lasarte-Orian ez ezik, Gipuzkoako hainbat herritan esku hartzeak egiten ditu, eta muga lokalak aspaldi gainditu zituen Euskararen Maratoia ere antolatu izan du, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, hirugarren alditik aurrera (1992). Azkena duela bost urte izan zen, 2016ko urrian, eta hor jarri zuten Euskaraldia eratzeko aletxoa, *Baietz 40 egun euskaraz* izeneko ariketaren bidez. Hilaren 16ko urteurren ekitaldian Mari Karmen Ormazabal lehendakariak azpimarratu legez, "gutxik dakite hazia Lasarte-Orian jarri zela".

Bidelagun ugari

Esan dugu Ttakun ibilbide oparoa egiten ari dela. Horregatik, jaso ditu zenbait aitortza: 2000. urtean, Abbadia saria, eta 2015ean, Bikaintasun saria. Iragan urtean Ser irratiak Bikaintasun saria eman zion, *Euskara* kategorian.

Bide hori, jakina, ez du bakarrik egin: langile, laguntzaile, kolaboratzaile, bazkide (400 inguru ditu) eragile, erakunde, elkarte, ikastetxe, euskaltegi eta udalekin (Lasarte-Oriakoarekin, batez ere) elkarlanerako bideak josi ditu elkarteak. Horiei guztiei eskerrak emateko ekitaldi pare bat egin ditu berriki, 30. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Hilaren 20an jarraituko du, FESTtakun izeneko jaialdiarekin: pintxo potea, Sorgin Dantza eta kontzertua egingo ditu.

Egoera utopiko batean, euskara eta euskal kultura erabat normalizatuta baleude alegia, jarduna eten beharko luke Ttakunek. Lasarte-Orian ez da hori gertatzen, eta ez dirudi egoera berehalakoan aldatuko denik. Horregatik, urratsak egiten eta urteak betetzen jarraituko du elkarteak. Helmugara iritsi bitartean, jarrai dezagun bideaz gozatzen, guztiok elkarrekin.







Janire Arroyo lasarteoriatarrak, tableta grafiko baten laguntzaz digitalizatzen ditu sortzen dituen marrazkiak. JANIRE ARROYO

Erabiltzaile, langile eta urteurreneko ilustratzaile

JANIRE ARROYO GRADILLA ILUSTRATZAILEA

Haurra zenetik izan du modu bateko edo besteko lotura Ttakun Kultur Elkartea-rekin Janire Arroyo Gradrilla-k. Berriki, elkartearen 30. urteurreneko ilustrazioa egin du

Txintxarri

Aisia, euskara eta laguna hitzak datozkio burura Janire Arroyo Gradilla (Lasarte-Oria 1996) herritarrari Ttakun Kultur Elkartea-z galdetuta. Txokoetan eta udaleku itxietan parte hartu zuen haurra zela, eta Eskola Kirola egitasmoko begiralea izan da aurtengo ikasturtera arte. Berriki, gainera, kultur elkartearen 30.urteurrena iragartzeko ilustrazio ederra ere egin du.

Ttakunek berebiziko garrantzia izan du bere euskalduntze prozesuan. Azaldu du gurasoek hizkuntza jakin ez, baina betidanik nahi izan dutela alaba euskaraz haz zedin: "Nik euskara ikasi eta kalean, egunerokoan ahalik eta gehien erabiltzea nahi zuten, eta eskolaz kanpo, uste dut Ttakunek ahalbidetu didala aukera hori".

Gogoan du, haurra zela, esperientzia "on eta aberasgarri ugari" bizitu zituela Ttakunen udako aisia programetan, baina oroimenean freskoago ditu Eskola Kirolean aritutako azken urteetan bizitakoak eta horien gainean ere mintzatu da. Umeekin aritzea gustuko du, beti gauza berriak ikasteko aukera ematen diolako. Herriko haurrak ezagutzeaz gain, gainerako begiraleekin ere harremana egiteko aukera eskaini diola ere azpimarratu du: "Herrian elkar gurutzatu bai, baina bestela harremanduko ez ginatekeen jendea ezagutu dut". Programa horretako begirale aritu den urteetan "oso ondo" pasa duela gaineratu du: "Haurrekin kirola eginez, egunerokotik deskonektatzeko modu bat ere eskaini dit".

30 urte, irudi batean

Ttakunen 30. urteurreneko ilustrazioaren egilea ere bada Arroyo. Eta ez da kasualitatea lan hori berari eskatu izana; erabiltzaile eta langile izan den herritar batek egitea nahi baitzuen kultur elkarteak. Azaldu du sortze prozesua "motza, baina intentsua" izan dela, entregatze data gertu zegoela jaso zuelako herritarrak mandatua egiteko deia: "Ikasketekin eta lanarekin nahiko lanpetuta nenbilen, baina agenda antolatzea lortu nuen". Horrela, arkatza eta orri zuria ondoan hartuta hasi zen lehen ideiak papereratzen. Hortik, lehen marrazkiak sortuta, tableta grafiko baten laguntzaz digitalizatu ditu eta ordenagailuan amaitu du lana, guztiari forma emanez.

Duela 30 urte ekin zion Ttakunek bere ibilbideari, baina, garai hartan Arroyo ez zen oraindik jaio ere egin. Horregatik, elkartearekiko duen ikuspuntutik hezurmamitu du ilustrazioa: "Irudikatu dudana bat dator nik Ttakunekiko dudan irudiarekin. Aisiarekin, euskararekin eta ongi pasatzearekin erlazionatzen dut elkartea, eta hori irudikatzen saiatu naiz; uste dut ikus daitekeela adin ezberdinetako jendea, mugimenduan, pozik".

Leiho batean hasten da marrazkia, eta ikus daiteke kultur elkarteak herri bat eta bertako herritarrak nola ureztatzen dituen: "30 urte hauetan Lasarte-Oriako euskara, kultura eta asisiaren bultzatzaile izan da Ttakun". Eta, ziur, herritar ugarik identifikatu ahal izan dituela kultur elkarteak antolatzen dituen hainbat jarduera ere, agertzen baitira horietako batzuk, Arroyori txikitako oroitzapenetan murgilduta gogora etorri zaizkionak: "San Pedro Jaietan antolatzen duen Busti blai jarduerarekin lotu nahi izan dut, eta metafora polita iruditu zait, Ttakun Lasarte-Oriarentzat zer den irudikatzeko". Patxintxi sariei ere egin die keinu. Ilustrazioaren eskuin aldean eta behean ikus daitezke pertsonaia maitagarriak, txapela bana eskuetan hartuta: "Oso ekintza polita iruditzen zait eta ezin nuen kanpo utzi".

"EUSKARA IKASI ETA KALEAN AHALIK ETA GEHIEN ERABILTZEA AHALBIDETU DIT TTAKUNEK"

ILUSTRAZIOAN IRUDIKATU DUENA BAT DATOR ARROYOK ELKARTEAREKIKO DUEN IRUDIAREKIN





Egun berezia gogotik ospatu du

Ttakun KEk 30 urte bete ditu

Ttakun Kultur Elkartea-k 30 urte bete ditu azaroaren 16an. Urtemuga berezi hori ospatze aldera, ekitaldi xumea egin du Ttakunenean, zenbait erakunde, alderdi politiko eta eragiletako ordezkariekin batera. Mari Karmen Ormazabal lehendakariak ibilbidea errepasatu du, Zuaznabar ahizpek txalaparta jo dute eta bakarrizketa umoretsua egin du Bea Egizabal-ek. Amaieran, mokadutxoa jan dute bertaratutakoek, giro ederrean.

Ekitaldira bertaratu dira elkarteko lehendakari izandakoak (Sebastian Kerejeta, Mari Jose Eizmendi, Tomas Arrizabalaga eta Mari Karmen Ormazabal; azken hori da gaur egungoa), Lasarte-Oriako udal korporazioan ordezkaritza duten alderdietako ordezkariak, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko kideak, Hernaniko Dobera Euskara Elkartea, Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeko zuzendari Konsuelo Aizpurua, Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak-en (Ebete) sortzaile Iñaki Eizmendi, Bea Egizabal umorista, Zuaznabar familiako txalapartariak eta Ttakuneko hainbat langile.



Ezker-eskuin: Sebastian Kerejeta, Mari Jose Eizmendi, Tomas Arrizabalaga eta Mari Karmen Ormazabal. TXINTXARRI



Mari Karmen Ormazabal lehendakariak egin die ongietorria gonbidatuei. TXINTXARRI



Ixabel eta Amaia Zuaznabar ahizpek txalaparta jo dute. TXINTXARRI



Bea Egizabal-ek barrez lehertzen jarri ditu ikus-entzuleak. TXINTXARRI





Arbelean Ttakun-i eskerrak emateko mezua idatzi du Egizabal-ek. TXINTXARRI



Bukatzeko, mokadutxoa jan dute Ttakunenea elkartean bertan. TXINTXARRI

Herritarrekin urtemuga ospatzeko, FESTtakun

Hiru hamarkadako ibilbidea ez da makala, eta 30 urte ez direlako egunero betetzen, ospatzen jarraituko du Ttakun Kultur Elkarteak: hilaren 20an, larunbatez, FESTtakun egingo du lasarteoriatarrekin batera.

11:00etatik 14:00etara, pintxo potea izango dute herritarrek Jalgi kafe antzokian. Antolatzaileak jakinarazi duenez, elkarteko bazkideek eta Solaskide programan parte hartzen dutenentzat doan izango dira edaria eta mokadutxoa.

Motorrak berotuta, gorputza astintzeko txanda iritsiko da arratsaldean, Sorgin Dantza itzuliko baita, aspaldiko partez. Dantzariek 17:30ean egingo dute lehen emanaldia Oria auzoan, eta ordubete beranduago, Okendo plazan. Azken bi asteetan jo eta ke entseatu dute, emanaldi ahalik eta dotoreena emateko herriari.

Eguna bukatzeko, Rukula taldeak kontzertua emango du Jalgin, 23:00etatik aurrera.



Galdera lehiaketan parte hartzeko eguna hilaren 21a izango da. TXINTXARRI

Kideetako bat herritarra da: Oihan Agirretxe bateria jotzailea. Denbora da Lasarte-Orian jotzen ez duela taldeak, eta gogotsu daude, euren sare sozialetan aditzera eman dutenez.

Galdera lehiaketa

Irakurle, honezkero badakizu TXINTXARRI-ko lantaldeak oso gustuko duela galdera lehiaketak antolatzea. Urri hasieran aldizkariaren 28. urtebetetzean egin genuen bezala, Ttakunek bete dituen 30 urteak dira erronka berri honen ardatza; hiru hamarkadako ibilbidea, hamar galderatan.

Den-denak asmatuz gero, Jalgiko lagunek prestatutako patata-tortilla eder bat irabaz dezakezue. Parte hartzeko azken eguna hilaren 21a izango da, igandea. Esteka honetan topatuko duzue lehiaketa: *https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1637040573205-ttakun_30urte_galdera*.

Eman Kronikari erremontari!
Kronika
ERREMONTE JAIALDIA

1.GO PARTIDUA
ZALDUA II - ZALDUA I
LOITEGI - MURGIONDO

2. PARTIDUA
GOIKOETXEA V - BARRENETXEA IV
ANSA II - ZUBIRI

BERTSOLARIAK
ANDONI REKONDO
EKAIN TOLARETXIPI


MUSIKARIAK
AMAIA IRAZUSTABARRENA - MIRARI JAUREGI - JOSEBA IZAGIRRE
EIDER TOLOSA - ELAIA DIAZ BEROZ

AZAROAK 25, OSTEGUNA · 17:00 - 20:00 · GALARRETA
SARRERAK 10€

SALMENTA-GUNEAK: HERNANI KRONIKA, TRIPONTZI, GARIN, EKOS, BODEGA, GALARRETA (EGUNEAN BERTAN), EREÑOTZU IRRINTZI, ASTIGARRAGA IKATZA, GOIZUETA AMAIA KAFETEGIA, URNIETA XAUXAR.


Kronika · ORIA MENDI · DORRONSORO

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
607 62 52 33 - lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es
Beste 30 urtez euskaraz elkarrekin!
Zorionak Ttakun!
aek
euskara praktikoa



Lasarte-Orian ere, betikoa gertuko

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Politika Sailburuordetzak sustatutako kanpaina da Betikoa, gertukoa; merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko egitasmoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei luzatu die bat egiteko gonbita, eta baietz esan du Lasarte-Oriako Udalak. Artikulu honetan jaso ditu TXINTXARRI aldizkariak ariketan parte hartzeko gakoak







Aterpea merkatarien elkarteko kide Ana Laureano eta Ramon Ormazabal-ek eta Lasarte-Oriako Euskara batzordeburu Jon Antxordoki-k aurkeztu dute egitasmoa. TXINTXARRI

Bezeroak

Euskaraz hitz egiten dakitenek,
lehen hitza euskaraz egingo dute, eta erosketak egitean edo kontsumizio bat hartzera joatean, salerosketa horretan euskaraz jardungo dute, euskaraz ulertzen duten edo euskaraz dakiten establezimenduetan.

Euskaraz ulertzen dutenek,
berriz, lehen hitza euskaraz egingo dute, euskaraz ulertzen dutela adierazteko. Horrez gain, ahal dutena euskaraz esateko ahalegina egingo dute, eta dendaria euskalduna denean, berari euskaraz egiteko eskatuko diote.

Dendariak eta ostalariak

Euskaraz hitz egiten dakitenek,
lehen hitza euskaraz egingo dute, eta euskaraz dakiten eta euskaraz ulertzen duten bezeroak euskaraz atendituko dituzte.

Euskaraz ulertzen dutenek,
aldiz, lehen hitza euskaraz egingo dute, eta euskaraz dakiten bezeroak hizkuntza horretan mintzatzera gonbidatuko dituzte.

Merkatariren batek kanpainarekin bat egin nahi badu, Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan, telefono hauetako batera deituta: 943-37 61 84 edo 646 79 78 30.



Zergatik merkataritzan eta ostalaritzan?
Herritarren egunerokoan gertuen dagoen ekonomia sektorea delako. Herriko bizitzan, paisaia linguistikoan, giroan...eragin nabarmena duelako. Horrez gain, herritar askori lana ematen dien sektorea ere badelako. Horregatik guztiagatik, merkataritza sektorea estrategikoa da euskararen normalizazio prozesuan.



Abenduaren 31ra arte iraungo du kanpainak

eskatu eskaini EUSKARAZ



BETIKOA, GERTUKOA.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



Udal ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuetako teknikaria, azaroaren 25eko egitarauaren aurkezpen ekitaldian. TXINTXARRI

Indarkeria matxistaren aurka sentsibilizatzeko

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira, herritarrak sentsibilizatu eta kontzientziatzeko zenbait jarduera antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Erakusketa batek zabalduko du egitaraua, hilaren 22an, eta elkarretaratzea ere deitu du 25erako

Txintxarri

Aurten ere, indarkeria matxistarik gabeko herri bat aldarrikatzeko, hainbat ekintza antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak azaroaren 25erako. Herritarrak gaiaz sentsibilizatzea nahi du, eta, bide horretan, urtez urte euren esku dagoena egingo dutela iragarri du Agustin Valdivia alkateak. Erakusketa, elkarretaratzea, antzerkia, liburu aurkezpena eta beste hainbat hitzordu izango dituzte lasarteoriatarrek, horietako hainbat gainera, kultura departamentuarekin eta herriko mugimendu feministarekin elkarlanean antolatuak. Aurtengo Beldur Barik lehiaketako sari banaketa, ordea, bertan behera geratu dela jakinarazi dute, ez baita herritarrik animatu egitasmoan parte hartzera.

Udalaren egitarauaz gain, aSunak taldeak ere kontzentrazioa deitu du, hilaren 25erako. Okendo plazan egingo dute, 19:00etan.

Azaroaren 25eko egitaraua

Azaroaren 22tik 28ra

- Mugarik gabe gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, *Indarkeria matxisten aurkako erakusketa globalak* erakusketa Emakumeen Zentroan.

Azaroaren 25ean

- 10:00etan ikus-entzunezko bat proiektatuko dute DBH 1-2. mailako ikasleentzat, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Proiekzioa amaitu ostean, solasaldia egingo dute. Jarduera hau kultura departamentuarekin elkarlanean antolatu dute.
- 12:00etan elkarretaratzea Okendo plazan.

Azaroaren 26an

- 19:30ean *Levantate y mea de pie* antzerki obra oholtzaratuko du Detrius teatrus taldeak kultur etxean. Sarrerak 3 euroren truke erosi ahal izango dira.

Azaroaren 29an

- 19:00etan Samara Velte kazetari eta EHUko doktoreak *Nik sinesten dizut* liburua aurkeztuko du. Maider Galardi kazetari eta EHUko doktore lasarteoriatarrak egingo ditu moderatzaile lanak. Jarduera hau talde feministarekin elkarlanean antolatu dute.

Abenduaren 1ean

- 18:00etan Beatriz Egizabalek *Argi ibili gurekin* ipuina kontatuko die etxeko txikienei. Kultur etxeko hitzaldi aretoan izango da. Jarduera hau kultura departamentuarekin elkarlanean antolatu dute.



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Albo-kalte(tuak)

Azaroaren 25a ate joka dugun honetan, indarkeria matxistak utzitako zeharkako biktimez hitz egin nahiko nuke, emakumeak baino are isilaraziagoak izan diren horiez: biolentzia bikarioak gogor jo dituen haurrez, edo amarenganako biolentziaren albo-kalteak pairatu dituzten horiez ari natzaizue. Datu ofizialek diotenez, 2013tik 41 umek galdu dute bizitza beren aitaren eskutik eta estatistiken arabera, 840.000 haur inguruk pairatzen dituzte indarkeria matxistaren albo-kalteak.

Indarkeria bikarioa indarkeria matxista mota bat da, eta biktima bihurtzen ditu erasotzaileak min egin nahi dion emakumearen senideak. Seme-alabak iskilu bilakatzen dira orduan, izan ere, bikotekideari edo bikotekide ohiari kosta ahala kosta kalte egiteko animoak guraso honek haienganako senti dezakeen edozein afektu gainditzen baitu.

Baina zer dago bere seme-alabak zauritzen edo hiltzen dituen gizonaren atzean? Erraz definitu daitekeen profil bat dela esan genezake, nartzisista eta albokoen mina ulertu eta sentitzeko gaitasunik ez duena (nahikoa izaten baitu berearekin).

Beste batzuetan, berriz, haurrak ez dira beste gurasoari min emateko erabiltzen, besterik gabe, gatazkak erdian harrapatzen ditu, punto. Eta ama jotzen duten esku berek, gutxiesten duen ahots berak atzematen ditu haiek.

Haur horiek ez dute haur izateko astirik, nahikoa baitute familia-nukleoaren zama bere gain hartzen. Askok ez dakite zer den aitatxo eta amatxoren lo aurreko muxua jasotzea, baina badakite oheratzean belarria ernetu behar dutela badaezpada ere; urduritu egiten dira gurasoak bakarrik uztean eta gorputzak salto egiten die sirena hotsak entzunez gero. Jakin badakite "ama bezalakoak direla", alegia, ez dutela ezertarako balio aitak maiz errepikatzen duen moduan; beste askok amatxo gaiztoa dela dakiten era berean.

Indarkeria bikarioak, eta orokorrean, indarkeria matxistak, emakumeak etengabe zalantzan jartzen dituen, aginpiderik gabe uzten dituen eta haien hitza kolokan jartzen duen gizarte baten konplizitatea duela esango nuke. Normalean, intimitatean suertatzeak, inguruan "aita onaren" eta "ama txarraren" imajinarioak gailentzea eragiten du, eta nahiago izaten da biktima izatera jolasten den gizona babestea emazte histerikoaren testigantza aditzea baino.

Honenbestez, emakumearen aurkako indarkeria hizpide dugun hilabete honetan, ez gaitezen seme-alabez ahaztu. Aldarrikatu ditzagun baita ere, albo-kalteak pairatzen dituzten haur hauen ongizate fisiko eta psikologikoa bermatuko dituzten lege zein baliabideak.

Flamenkoari aitortza

Semblante Andaluz elkarteak eta Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak (FARAE) antolatuta, Tabita taldeak Niña Pastori flamenko musikariaren pieza onenak taularatu ditu kultur etxean. Gogotik gozatu dute ikus-entzuleek, eta txaloekin eskertu artisten lana, emanaldia bukatzean.

Kontzertuaren ostean, bertaratutakoek mokadutxoa jan dute kultur etxeko kafetegian.



TXINTXARRI

Hiru hamarkada pausoka eta ametsak betetzen

Jalgune elkarteko kideek jaialdi koloretsua oparituko diote Lasarte-Oriari hilaren 27an, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 18:00etan hasita. Horrez gain, bi bideo grabatuko dituzte, 30 urte horietan zehar lagun eta elkarteekin bizi izan dituzten "une guztiak batzeko"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Exta-sí, exta-no, esta me gusta me la como yo dio Chimo Bayo DJ eta musika ekoizlearen kanta batek. Hori abesten ekin diote prentsaurrekoari Jalgune elkarteko kideek, ez kasualitatez: 1991n kaleratu zuen abesti hori, eta orduko belaunaldiaren ereserki bilakatu zen. Urte berean, proiektu berri bat jaio zen Lasarte-Orian, zenbait gurasoen beharrei erantzuteko: Jalgune. "Bayoren kantak bezala, gure elkarteak aldaketa bat ekarri zuen herrira", adierazi dute. "Hasiera ez zen erraza izan, ez ginen denen gustukoak izan, baina jaio ginenez geroztik, belaunaldi askok gozatu dute Jalgunerekin". Agerraldian izan dira baita ere udal korporazioko kide diren alderdi politikoetako ordezkariak, Ttakun Kultur Elkarteko zuzendaritza batzordeko kide Inma Muñoa eta Ore Ama obradoreko langile Joseba Rekondo.

Jalguneren ibilbideko lehen zutabea "familia" izan zen, "Lasarte-Oriako Udalarekin batera", elkarteko kideek gogoratu dutenez. "Hasierako uneetan zein hurrengoetan, amabitxi eta aitabitxiak oso garrantzitsuak izan dira, eta gureak balio handikoak dira: Pirritx, Porrotx eta Marimotots; eta Semblante Andaluz". Beste zutabeetako bat "lagunak" direla esan dute, eta "oso harro" daudela beraienez. "Esperientziak, emozioak eta helburuak partekatzen ditugu; elkar aukeratu genuela uste dugu". Elkarrekin "dantzatzeagatik, kantatzeagatik eta ikasteagatik" eskerrak eman dizkiete.



Jalguneko kideak, udal ordezkariak eta kolaboratzaileak, prentsaurrekoan. TXINTXARRI

Ospatzeko, jaialdia eta bideoak

Jalguneko kideek adierazi dute oso gustuko dutela gozatzea, are gehiago ospakizun urtea denean. Elkarteak 30 urte bete ditu aurten, eta horretarako, jaialdi koloretsua oparituko diote herriari hilaren 27an, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 18:00etan. Ohi bezala, lagun ugarik parte hartuko dute emanaldian. Bideoz grabatuko du TXINTXARRI-k, eta bere atari digitalera igoko.

Beste bi bideo Jalgunek grabatuko ditu, baina ez bakarrik. Urtebetetze bideoklipa izango da bat, zorion mezuak bidali dituzten elkarteen piezekin egindako muntaia, Semblante Rociero koruko kide batek sortu eta Jalgunerekin batera abestutako kanta batekin. Bestea *Pausoka, pausoka* abestiaren bideoklipa izango da; Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek egin zuten. Isa Fernandez de Agirre herritarrak lagunduko die bideoa grabatzen Jalguneko kideei. "Bi ikus-entzunezko horiekin gure amabitxi eta aitabitxiak omendu nahi ditugu. Gainera, gure familiak eta lagunek ere parte hartuko dute; urtebetetze ospakizun biribila izango da!". Kideek zehaztu dute herritar zein elkarteei zabaldu dietela parte hartzeko deia.

Hiru hamarkadak ospatzeko irrikaz daude: "Urteak betetzearen gauza garrantzitsuenetako bat uneak partekatzen jarraitzea da, eta lagun politenak ditugu horretarako".

"URTEBETETZE OSPAKIZUN BIRIBILA" EGINGO DUTELA AURRERATU DUTE JALGUNE-KO KIDEEK

Adi irakurri TXINTXARRI!

Sorpresaz betetako agerraldia egin dute Jalgune elkarteko kideek. Horietako bat hau izan da: abenduaren 3a aniztasun funtzionala duten pertsonen zein euskararen eguna denez, ospakizuna herritarrekin partekatuko dutela, Ttakun Kultur Elkartea, Aterpea eta Ore Ama obradorearekin elkarlanean. Abenduaren 3an argitaratuko dugun paperezko TXINTXARRI-n honakoa topatuko duzue: Ore Aman sari gozo batengatik trukatzeko txartela, eta Aterpearen ehun euroko bi sariren zozketan izena emateko orriak.



TXINTXARRI

Baserrikoa etxera eraman dute

Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi elkarteak antolatuta, VIII. Baserriko Produktuen Azoka egin dute Okendo plazan. Baserrietako produktu freskoak ikusi eta erosi dituzte herritarrek, erosketa poltsak etxera bueltan bete-beteta eramateraino. Sei saltzaile postu jarri dituzte aurten.



USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Nazioarteko ordezkariak, ULEn

Lanbide Heziketako Nazioarteko Kongresua egin dute berriki Donostian. Egitarauaren barruan, Usurbilgo Lanbide Eskolaren instalakuntzak ikusi dituzte alor horretako nazioarteko 25 ordezkarik. ULEko zuzendari Isidro Zaldua-k proiektu berritzaileen gainean hitz egin zuen haiekin: hala nola EXAM 4.0, STEAM prestakuntza osagarria eta metodologia kolaboratiboak.

'Altsasu' taularatu dute

Altsasu antzezlana taularatu du La Dramatica Errante konpainiak Manuel Lekuona Kultur Etxean. Nafarroako herri horretako Koxka tabernan 2016ko urriaren 15eko goizaldean gertatutako liskarra eta ondorengo auzi judiziala lantzen ditu Maria Goiricelaya-k zuzendutako ikuskizunak. Ikus-entzuleek asko gozatu dute, eta zutitu egin dira amaieran, aktoreen lana txalotzeko.



TXINTXARRI

Saleta, 20 urtez azpiko Europako txapeldun

Espainiak eta Portugalek final borrokatua jokatu dute. Alex Saleta herritarrak hasitako jokaldi batek garaipeneko entsegua bideratu du. 20 urtez azpiko taldeak lehiaketako garaikurraz gain, World Rugby U20 Trophy lehiaketarako sailkapena ere eskuratu du

Txintxarri

Partida zaila izan zuen Espainiako 20 urtez azpiko taldeak, azaroaren 13an, Coimbran (Portugal). Europako Txapelketako finalean, etxeko taldea eta azken urteetan maila horretako txapeldun izan den Portugal zuen aurrez aurre. Alex Saleta herritarrak eta bere taldekideek gogor borrokatu eta 9-15 irabazi zuten lehia. Bigarren zatian sartu arren, erabakigarria izan zen garaipenean, berak hasitako jokaldi bati esker.

Talde lusitaniarrak aurre hartu zuen hasierako minutuetan. Jokoaren erritmoa ezarri eta bi zigor ostikoz baliatuz 0-6 aurreratu zen markagailuan.Saletaren kideek ez zuten amore eman eta etxeko taldearen joera moztu zuten. Aurkariari oinarekin jolastera behartu eta erasoan pixkanaka-pixkanaka gailentzen joan zen. Ondorioz, zigor ostiko eta entsegu batek aurretik jarri zuen Espainiako taldea, 8-6.



Saleta, urrezko dominarekin. A. SALETA

Atsedenerako txistua baino lehen, ordea, Portugalek beste zigor ostiko bat sartu zuen, 8-9.

Bigarren zatia indartsu hasi zuen Espainiako selekzioak. Hutsuneak baliatuz aurrera egin eta aurkariaren zelaira eraman zuen jokoa. Tamalez, txartel horia atera zioten 20 urtez azpiko taldeko kideetako bati, eta Portugalek jokoa berdintzeko baliatu zuen. Minutuak pasa ahala, gainera, metroak irabazi zituen eta puntuak lortzeko zorian egon zen behin baino gehiagotan.

Partida amaitzeko zegoela, Saletak erabakigarri izango zen jokaldiari eman zion hasiera. Erasora jo zuen herritarrak metro batzuk irabaziz eta Fonsecari baloia pasa zion. Marrara iristea lortu zuen hegaleko jokalariak. Galik, gainera, ez zuen ostikadan huts egin eta zazpi puntu horiei esker, Europako txapela buruz aldatu zen.

Saleta eta bere taldekideek pozarren hartu zituzten Europako txapelketako garaikur eta urrezko dominak. Lehiaketako finalera iristeagatik, gainera, World Rugby U20 Trophy txapelketa jokatzeko txartela ere lortu du Espainiako taldeak.

Genuine Ligak 2019-2020 denboraldiari amaiera eman dio

42 talde batu dira Tarragonan, eta Real Sociedad fundazioko jokalariak ere izan dira bertan

Txintxarri

Bi urte geldirik egon ostean, 2019-2020ko denboraldiko Genuine Ligari amaiera eman diote azaroaren 12tik 14ra, Tarragonan antolatu den topaketan. Espainiar Estatuko 42 talde bildu dira bi lehiaketa ezberdinetan parte hartzeko.

2020ko martxoan lehian zeuden 36 taldeek Adiskidetasunari saria, Kiroltasunari saria eta Joko garbiaren saria izan dituzte jokoan. Horien artean, Iosu Zabache Sanchez herritarra kide duen Real Sociedad Fundazioak.

Gainerako sei taldeek –2021-2022 Ligako kide berriak– txapelketaren nondik norakoak ezagutzeko euren arteko ligaxka jokatu dute.

Jokatzeko gogoak

Realeko jokalariak ilusioz egin zuten bidaia Tarragonara. Eten luzearen ostean, Genuine Ligako gainerako taldeekin berriro lehiatzeko gogoekin zeuden jokalariak.

Reala Adiskidetasuren sariko multzoan lehiatu zen eta Real Zaragoza, Villarreal CF eta Reus taldeen aurka jokatu zituen partidak.

Ederki hasi zuen txapelketa Zaragoza 0-3 garaituz. Gainerako bietan, ordea, ez zuen zorterik izan. Villarreal CFren eta Reusen aurka 0-1 galdu zuen.

Hamargarren postuan sailkatu zen. Sari nagusiak, berriz, Cordoba CF (Adiskidetasunari saria), Fundacion Rayo Vallecano (Kiroltasunari saria) eta Athletic Club Fundazioak (Joko garbiaren saria) taldeek eskuratu zituzten.

Birtualki lehia

Bi urtez zelaian elkartu ezin izan diren arren, Genuine Ligak sarean ekimenak antolatu ditu taldeak harremanetan mantentzeko. Esate baterako, Genuine talent lehiaketarako Zabachek pianoa jo zuen eta Realak minijokoen txapelketa irabazi zuen.



Intza-ko Nagusien 3. mailako bikoteak Hernani nagusitasunez garaitu zuen. TXINTXARRI

Nagusien 3. Mailako bikotea, azken faserako sailkatua

Intza KEko bikoteak Hernani eroso garaitu du, Michelin kirol gunean. Jardunaldiko garaipen bakarra izan da

Txintxarri

Pilota jaialdia izan zen Michelin kirol gunean azaroaren 13an. Intza Pilota elkarteko kadeteek ez zuten zorterik izan; nagusiek, berriz, Hernani garaitzearekin batera, finalerako bidea hartu dute.

Kadete mailako partida izan zen goizeko lehena. Jokin Lizasok eta Beñat Olazabalek Aloña Mendi-ren bikotea izan zuten aurrez aurre. Lehen zati borrokatua jokatu zuten kadeteek. 7-12 markagailuan zela, ordea, aurkariek jokoa bere egin eta hamar tanto jarraian egin zituzten partida irabazteko. Intzako gazteek ezin izan zuten ezer egin.

Nagusien 3. Mailako bikoteak, berriz, lehen faseari amaiera ezin hobea eman zion, garaipenarekin. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola hasieratik jokoan nagusi izan ziren eta ez zioten Hernani-ren bikoteari inolako aukerarik eman.

Intzako nagusiek ez dute partidarik galdu lehen fasean eta txapelketako final laurdenerako sailkatu dira. Oraindik ez dakite zein izango den euren aurkaria.

Jubenil mailan, berriz, Añorgako pilotalekuan izan zen Añorga-Intza neurketa. Lehen minutuetan ederki jokatu zuen Haritza Diaz de Gereñu-k eta Pedro Elosegui-k osatutako bikoteak. Tamalez, pixkanaka indarrak galtzen joan eta Añorga 22-10 gailendu zen.

Bakarkako lehia

Gipuzkoako Elkarteen Arteko Bikotekako Txapelketa amaitzear dagoela, banakako lehia hasiko da. Haritza Diaz de Gereñu jubenilak eta Beñat Olazabal kadeteak lehen jardunaldia jokatuko dute hilaren 20an eta 21ean. Ataungo Eizaguirre eta Soraluzeko Caramanzana izango dituzte aurkari, hurrenez hurren.

LOKEko judokarik ez da izango Espainiako txapelketan

Iparraldeko eremuko judokek hitzordu garrantzitsua izan zuten azaroaren 4an, Iruñean: Espainiako txapelketako sailkatze proba. LOKEko Fermin Balda eta Asier Sagasti seniorrek parte hartu zuten lehiaketan. Ederki borrokatu arren, biek hirugarren postua eskuratu zuten euren pisuetan. Beraz, ezin izan dira Espainiako txapelketarako sailkatu.



LOKEko judokak, dominekin. LOKE JUDO

Lasarteoriatarrak bikain, errepide zein mendian

Herritarren artean, azkarrenak izan dira Gorka Gil Martin eta Maite Salazar Badiola. 108 herritarrek egin dituzte Behobiatik Donostiarako hogei kilometroak. Urduñako Mendi Lasterketan ere izan dira herritarrak lehian bakarka zein errelebo proban

Txintxarri

Giro ederrean lehiatu zen, azaroaren 14an, 56. Donostia-Behobia lasterketa. 20.414 korrikalarik Irungo Behobia auzoa eta Donostiako Bulebarraren arteko hogei kilometroak bete zituzten; horien artean, 108 lasarteoriatar izan ziren. Guztiek lasterketa nagusian parte hartu zuten.

Herritarren artean azkarrenak Gorka Gil Martin (01.09.08) eta Maite Salazar Badiola (1.27.16) izan ziren. Gilek bere seigarren parte-hartzea zuen; 2019ko denbora hobetu ez arren, bere sailkapenik hoberena lortu du: sailkapen orokorreko 41. postua eta beterano mailako zortzigarren postua.Salazarrek, berriz, 2019an ezarritako marka ondu zuen 30 segundotan. Bederatzi aldiz parte hartu du herritarrak eta urtez urte denbora hobetu du.

Ez ziren bere marka ondu edo hobetzetik gertu ibili ziren herritar bakarrak izan. Unai G. Somovilla Herrerok, esate baterako, junior mailako 5. postua eskuratu zuen.



Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuten hainbat herritar. ISAAC FARRÉ RICO

Somovillak 2019 urteko marka lau minututan jaitsi zuen.

Urduñan ere lehian

Behobia-Donostia lasterketan ez ezik, IV. Urduñako Mendi Lasterketan ere izan ziren herritarrak lehian, egun horretan bertan.

Proba nagusian, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartea-ko Javi Olazagoitia Rodriguez eta Ines Aguado Blanco kideek parte hartu zuten. 33 kilometro eta 1.750 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea 04.14.00 denboran egin zuen Olazagoitiak; Aguadok, berriz, lau ordu eta 35 minutu behar izan zituen.

Aurten estreinakoz 33 kilometrotako txandakako proba ere antolatu da. Horretan LOTMEko Marc Bages Bosch eta David Garcia Romero lehiatu ziren eta zazpigarren postua eskuratu zuten, 03.10. denbora eginez.



KZL-ko lehen jardunaldian lehiatu ziren igerilarietako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko gaztetxoak, ederki euren hitzorduetan

Igeriketa taldeko hamabi benjaminek debuta egin dute Kirol Zehaztasun Ligako lehen jardunaldian

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariek bi hitzordu izan zituzten azaroaren 13an, Tolosan: Kirol Zehaztasun Ligako lehen jardunaldia eta Alebin Ligako 2. jardunaldia.

Igeriketa taldeko txikienek denboraldiko lehen txapelketari egin zioten aurre. 2013an eta 2012an jaiotako haurrek, gainera, lehenengoz egin zuten jauzi uretara txapelketa batean.

Horiek hamabi igerilari izan ziren. Bakarka 50 m. libre proba lehiatzeaz gain, 6x25 m. bizkar estiloko errelebo mistoan ere parte hartu zuten. B mailako benjamin mailako sei igerilari (2011 urteko neska-mutilak eta 2010 urteko mutilak), aldiz, 50 m. bizkar proban eta 100 metro librean aritu ziren. Urduritasunak alde batera utzi eta guztiak "txukun" aritu zirela azaldu du taldeko arduradun Borja Apeztegia-k.

Alebinak ere ederki

Alebin mailako kideek ere "maila ederra" erakutsi zuten ligako bigarren jardunaldian. Buruntzaldea IKTko hamabi gaztetxoek bi proba lehiatu zituzten: 200 m. lau estiloak eta 100 m. libreak. Mutilek 4x200 m. erreleboan ere parte hartu zuten.

Proba luzeari "beldurrik gabe" eta "ausardiaz" aurre egin zioten igerilariek Apeztegiaren hitzetan. Estilo libreko saioan "sendo" igeri egin zutela ere aipatu du. Gainera, Mario Amantegi-k erreleboko azken postan egindako lana nabarmendu du. Ondorioz, lehen postuetan sailkatu ziren igeriketa taldeko kideak.

Ostadar Boleibola-ko taldeek ezin etxean puntuei eutsi

Euskal Ligako taldeak Galdakaoren aurka galdu du; kadete mailan, berriz, Hernani gailendu da

Txinxtarri

Boleiboleko zaletuek bi hitzordu izan zituen azaroaren 14an, goizean, Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar Boleibola ataleko senior taldeak eta kadeteek jardunaldia izan zuten. Tamalez biek esku hutsik amaitu zituzten neurketak.

Eskolarteko mailako kadeteen Irekiera Txapelketako hirugarren partida jokatu zen lehenik.

Hernani izan zuten aurkari talde urdin-beltzeko txikienek. Nahiz eta etxeko jokalariak hasiberriak izan, neurketa borrokatua izan zen: 25-20;25-19 eta 25-16.

Taldeak txapelketako hiru jardunaldi jokatu ditu eta hirurak galdu ditu. Hala ere, Asier Acuriola entrenatzaileak azaldu duenez, "taldeak izaera du. Horri eta lanari esker, denboraldi honetan partidak borrokatu eta garaipen bat lortzea posible ikusten dugu".

Norgehiagoka berdindua

Euskal Ligako 2. Mailako partidan berriz, Ostadarrek eta Galdakao BTk neurtu zituzten indarrak. Partida parekatua izan zen eta bizkaitarrek lortu zuten garaipena, 1-3.

Partida gaizki hasi zuen talde urdin-beltzak. Akats ugari egin zituen bai sakean, baita baloia hartzerakoan ere. Ondorioz, aurkariak eraman zuen seta, 15-25.

Arazoak konpondu eta bigarren set borrokatua jokatu zuten; Ostadarrek 30-28 irabazi zuen.



Euskal Ligako 2. Mailako taldeak ezin izan zuen Galdakao garaitu. OSTADAR BOLEIBOLA

Hirugarren zatian, berriz, partida hasierako mamuak itzuli ziren eta atzetik joan zen etxeko taldea. Galdakaok eraman zuen seta, 18-25.

Azken zatian, berriz, Ostadar izan zen aurrea hartu zuena. Azken tantoetan, ordea, ez zuen asmatu eta bizkaitarrek eraman zuten seta eta partida, 24-26.

KOMIKIA



ZORIONAK



Javitxu
Zorionak Zatapatriarka! 7.0a iritsi da, e!! Guk badugu zuk gorputza mugitzen jarraitzeko opari aparta! Baina horren truke bazkari eder bat prestatuko diguzu igandean ezta? Muxu! Etxekoak

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotza data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 19	LASA
LARUNBATA, 20	GIL
IGANDEA, 21	GIL
ASTELEHENA, 22	DE ORUE
ASTEARTEA, 23	ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 24	URBISTONDO
OSTEGUNA, 25	GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

***URTE OSOKO GUARDIAK* APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKARIA

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643239251

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

OHARRA

Danok Kide-ren Jaiotza Lehiaketa martxan

Eguberriak gerturatzen ari dira eta Danok Kide-k urteroko ohiturari eutsiz, jaiotzen 28. lehiaketa antolatu du.

Elkarteko ordezkariek jakinarazi dute, abenduaren 17, larunbata, eta 18an, igandea jasoko dituztela lanak, egoitzan bertan (Blas de Lezo kalea, 11. zenbakia) eta 17:00etatik 19:00etarako ordutegian.

Autobusa Gasteizera abenduaren 11n

Soziedad Alkoholika, Angelus Apatrida, Anestesia eta Proud'Z taldeek kontzertua eskainiko dute abenduaren 11n, Gasteizeko Iradier Arenan.

Autobusa antolatzen ari dira Lasarte-Oriatik hitzordura joango diren pertsonekin. Jalgi kafe antzokian eman behar da izena.

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak: Igone Mendizabal, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, SA

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Antzerkia
Hilabeteko bigarren saioa egingo du Okendo Zinema Taldeak: *Las cosas que decimos, las cosas que hacemos* filma proiektatuko du.
Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA Ospakizunak
Ttakun Kultur Elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu, 30 urte bete dituela ospatzeko. FESTtakun izena jarri dio aurrera eramango duen jarduera sortari.

11:00etatik 14:00etara, pintxo potea Jalgi kafe antzokian. Ttakuneko bazkide eta Solaskide egitasmoan parte hartzen dutenentzat, doan.

17:30ean eta 18:30ean, Sorgin Dantza. Bi saio egingo dituzte: Oria auzoan bat, eta Okendo plazan bestea, hurrenez hurren. Desfilerik ez dute egingo.

23:00etan, Rukula taldearen kontzertua Jalgi kafe antzokian.
Herrian zehar.

LASARTE-ORIA Ospakizunak
Lasarte-Oriako Zezensuzkoen eta Erraldoien Taldeak hainbat jarduera antolatu.

11:00etan, erraldoi eta buruhandien kalejira, Ttirriki-Ttarrakakoek girotuta.

13:00etatik 14:00etara, LOZET elkartearen aurkezpena Loidibarrengo pilotalekuan. Photocalla erraldoi eta buruhandiekin eta haurrentzako pintura tailerra.

16:00etatik 17:00etara, pintura tailerraren jarraipena.

17:00etatik 19:00etara, erraldoi eta buruhandiekin kalejira, Loidibarrengo pilotalekutik, Gautxori txarangak girotuta.



LASARTE-ORIA Emanaldia. Lasarte-Oriako Zero Sette Akordeoi Orkestrak XVIII. Akordeoi Jaialdia antolatu du asteburu honetarako. Banduoneando taldea eta Pietro Roffi artista gonbidatu dituzte aurtengo hitzordura. Lehenengoak, tango bidala bat proposatuko die ikus-entzuleei, eta, bigarrenak, berriz, munduan zehar bidaiatzeko aukera emango du. Sarrerek 5,50 euro balio dute, eta kultur etxeko leihatilan eros daitezke.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

20:30ean, zezensuzkoen irteera, Kale Nagusitik.

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Emanaldia
Santa Zezilia egunaren bezperan, Alboka abesbatzak saioa emango du. Mezan abestuko du aurrena, eta herriko zenbait gunetan gero.
Arantzazuko Ama parrokia, 11:30ean.

LASARTE-ORIA Ekitaldia
Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko ekitaldi nagusia egingo du. Herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera.
Kultur etxea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Dos colegas y la gran bestia filma ikustera joateko aukera izango dute gazteenek. Sarrerak kultur etxeko leihatilan salgai daude, 3,80 eurotan.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Madres paralelas filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Dos colegas y la gran bestia'
Azaroak 21
17:00.

'Madres paralelas'
Azaroak 21:
19:30.

USURBIL

URBIL

'El lobo y el león'
Azaroak 19:
18:30.
Azaroak 20:
16:40, 18:30.
Azaroak 21:
16:40, 18:30.

'Antlers: Criatura oscura'
Azaroak 19:
15:45, 20:35, 22:40.
Azaroak 20:
15:45, 20:35, 22:40.
Azaroak 21:
15:45, 20:35, 22:40.

'Eternals'
Azaroak 19:
16:15, 18:15, 19:20, 21:45.
Azaroak 20:
16:15, 18:15, 19:20, 21:45.
Azaroak 21:
16:15, 18:15, 19:20, 21:45.

'Harry potter y la piedra filosofal'
Azaroak 19:
15:45, 18:45.
Azaroak 20:
18:45.
Azaroak 21:
18:45.

'La familia Addams 2'
Azaroak 19:
16:05.
Azaroak 20:
16:05.
Azaroak 14:
16:05.

'Ron da error'
Azaroak 19:
15:45.
Azaroak 20:
15:45.
Azaroak 21:
15:45.

'Sin tiempo para morir'
Azaroak 20:
21:00.
Azaroak 21:
21:00.

'Rosendo: Mi tiempo, señorias...'
Azaroak 19:
21:00.

ANDOAIN

BASTERO

'El lobo y el león'
Azaroak 21
17:00.

'Petite maman'
Azaroak 21:
19:30.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Urnieta KE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:45. Urnietan.

GORENGOEN MAILA

Danena KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Elbarrena, Zizurkilen.

ERREGIONALEN 1. MAILA

Intxurre KKE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Danena KE
Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT A - Arrupe Chaminade CD A
Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Lengokoak KE B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Real Sociedad SAD
Igandea. 12:00. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA

Sporting de Herrera - Ostadar SKT A
Larunbata. 12:00. Herrera, Donostian.

Ostadar SKT B - Vasconia CD
Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Zarautz KE A - Texas Lasartearra CF
Igandea. 12:45. Asti-Txiki, Zarautzen.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Danena KE - Ostadar SKT
Larunbata. 09:00. Elbarrena, Zizurkilen.

INFANTILEN 1. MAILA

Usurbil Udarregi FT B - Ostadar SKT A
Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT B - Danena KE
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Euskalduna SD - Texas Lasartearra
Larunbata. 10:00. Ubitarte, Andoainen.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Teep Tolosala
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA

Teep Tolosala - Eguzki ISU Leihoak
Ostirala. 20:30. Uzturpe fr., Tolosan.

GAZTEEN MAILA

Laskorain KE - Eguzki AF 2KN
Larunbata. 12:45. Usabal kirol., Tolosan.

INFANTILEN MAILA

Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra B
Igandea. 11:20. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR 1. MAILA

Graficas Juaristi ZKE - Ostadar SKT
Larunbata. 18:30. Aritzbatalde Berria kirol., Zarautzen.

SENIOR 2. MAILA

Ostadar SKT - Saski Goiena Hemen Garbiketak
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 3. MAILA

Andraitz KE - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Domingo Agirre ik., Legazpin.

JUNIOR ERRENDIMENDU

Ostadar SKT - Ganboa Hoops
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU

Ordizia KE - Ostadar SKT
Larunbata. 09:15. Majori kirol., Ordizian.

KADETE PARTAIDETZA

Astigarragako Mundarro FKE - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Astigarragako kiroldegian.

INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA

Goierri - Ostadar SKT
Igandea. 10:45. Aldiri kirol., Urretxun.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA

ZAST 2009 - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Antonioano kirol., Zarautzen.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz RT - AVK Bera Bera RT
Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Iruñea RC
Larunbata. 15:10. Michelin kirol gunea.

18 URTEZ AZPIKOA

Mutriku /Eibar - Itsasmendi Gesalaga Okelan Zarautz RT
Larunbata. 15:10. Michelin kirol gunea.

16 URTEZ AZPIKOA

Vithas Gaztedi RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT
Larunbata. 12:00. Gamarra, Gasteizen.

PILOTA

JUBENILAK 2. MAILA

Intza KE - Ataun
Larunbata. 16:00. Michelin pilotalekuan.

KADETEAK 2. MAILA

Soraluze - Intza KE
Igandea. 11:00. Udaleko pil., Soraluzen.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Univ. de Deusto Madre de Dios - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. Madre de Dios ik., Bilbon.

JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Aldapeta Maria A
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

Aldapeta Maria C - Ostadar SKT
Larunbata. 12:25. Txomin Madinabeitia kir., Donostian.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute.
Larunbata. 15:30. Allurralde kir., Andoainen.

ATLETISMOA

ESKOLARTEKO JARDUNALDIA

Ostadar Atletismo Eskolako kideek pistako eskolarteko jardunaldia izango dute.
Larunbata. Antonio Elorza bel., Donostian.

Bideo TIEN 21 Lagunak

Finantziazioa neurrira · Garraio zerbitzua · Erabilitako gailuen jasotzea · Aholkularitza espezializatua · Preziorik onena

Etxekotresna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Ez galdu gure eskaintzak!

BLACK FRIDAY

azaroaren 22tik 27ra

Donostia eorbidea, 2 · LASARTE-ORIA | Tel: 943-37 31 34 | www.bideolagunak.com

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.

Salbuespenik gabe.

bertako igogailuak | ascensores

www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO OBJEKTUAK BERRESKURATZEA

HARRAPATZE EGOERAK

IGOGAILUKO ZARATAK

365/24/7

ARABA 945 712 822

BIZKAIA 946 523 935

GIPUZKOA 943 903 450

NAFARROA 848 870 917

ETORKIZUNA ERAIKIZ CONGRESS

Building the Future

Kursaal
Abenduak
13-14
2021

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatu duten lau erakundeak.

Izen-ematea:
www.etorkizunaeraikizcongress.com

GIPUZKOA ETORKIZUNA ORAIN

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

Deusto Universidad de Deusto

Mondragon Unibertsitatea